

ASTIGARRAGA. SAGARDOETXEA.**HAUSNARKETA-TALDEA: 1. SAIOA**

Eguna: 2021/04/22

Ordua: 18:00-20:30

Tokia: Astigarragako Kultur Etxe zaharra

Etorritakoak:

1. Aitor Bereziartua (Bereziartua Sagardotegia)
 2. Antton Arka (Goldea Elkartea)
 3. Aritz Arrizabalaga
 4. Egoitz Zapiain (Zapiain Sagardotegia)
 5. Iñigo Touzani (Astigarragako zinegotzia)
 6. Jabier Lekuona
 7. Jaione Irazu (Astigarragako Udala, Toki-Garapen saila)
 8. Joxan Alberdi
 9. Joxe Miel Barandiaran (Zipotza Elkartea)
 10. Juanxo Zuaznabar (Zipotza Elkartea)
 11. Miren Josebe Lucas
 12. Nere Lizeaga (Gartziategi Sagardotegia, Sagardun Partzuergoa)
 13. Pedro Garmendia (Baratz Elkartea)
 14. Aintzane Barandiaran (Berdintasun eta Kultura zinegotzia)
 15. Xabier Urdangarin (Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria)
 16. Joxe Mari Alberro (Sagardun Partzuergoko kudeatzailea)
 17. Leire Alkorta (Sagardun Partzuergoko komunikazio arduraduna)
 18. Idurre Zugazagasti (Elhuyar)
 19. Maite Unzalu (Elhuyar)
-



Gai zerrenda:

1. Sarrera

Xabier Urdangarinek, Astigarragako alkateak, ongi-etorria eman die hausnarketa-taldeko kideei. Era berean, *Sagardoetxea, etorkizuna erabaki* partaidetza-prozesuaren berri eman du eta honen beharra eta zergatiak konpartitu ditu. Jarraian, Elhuyarreko kideek hausnarketa-saioaren helburua eta planteamendua aurkeztu dituzte.

Hausnarketa-taldearen lehen saioaren helburua Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzeko lehen oinarriak lantzea izan da, analisi partekatutik abiatuz.

-
1. Ongi etorria
 2. Partaidetza prozesuarekiko hurbiltze ariketa bat.
 3. *Sagardoetxea, etorkizuna erabaki*
 - 3.1. Partaidetza-prozesua
 - 3.2. Sagardoetxearen ibilbidea eta oraingo egoera azaldu.
 - 3.3. Banakako lehenengo irakurketa bat.
 - 3.4. Talde txikietan: etorkizuneko eszenatokiak
 4. Balorazioa
 5. Itxiera
-

2. Girotzea

Lehenik eta behin, eta partaidetza-prozesuarekiko hurbilpen gisa, hausnarketa-taldeko partaide bakoitzari banatutako orrian hiru galdera erantzuteko eskatu zaie.

Banaka erantzun ondoren, partaide bakoitzak bere burua aurkeztu du eta partaidetza-prozesuarekiko espektatibak zeintzuk diren konpartitu dira.

ZER DA ZURETZAT SAGARDOETXEA?

ZEIN PERTZEPZIO DUZU SAGARDOETXEAZ?

- Astigarragak, sagardoaren kultura mantendu, eta zabaltzeko duen baliabidea eta tresna egokia da. Zalantzak ditut baina herriak ondo ulertzen ote duen bere izaera.
 - Astigarragako ikur moduko zerbait. Pertzepzio oso ona dut.
 - Aukera ugari ematen dituen ekimena da. Ezagutu ahala sorpresa ona. Herri gisa, ibilbide baten eta ekimen askoren emaitza da.
 - Herriarentzat gauza ederra da. Sagardoetxeak prozesu osoa erakusten du: sagastiak, sagar-motak... Nik ondo ikusten dut, eta posible balitz, museo berri bat egitea
 - Lehen sagardoaren nazio mailako museoa zela uste nuen, aisialdirako edo sagardoaren kultura hobeto ezagutzeko gunea. Gaur egin Astigarragako
-

herriari estuki lotuta dagoen herri-proiektu bat.

- Museoa, elkargunea, interpretazio zentro, denda, erakusleho... Sagardoaz eta sagardoarentzat sortutako gunea
 - Sagardoaren historiaz eta bilakaeraz gehiago jakiteko gunea da. Euskal tradizioetan sakontzeko gunea. Astigarraga herriaren identitate kulturalaren parte garrantzitsua da. Esperientzia gastronomia. Sagarrondoez eta naturaz goatzeko lekua. Egun nahiko xume eta "kutre" puntu bat duela esango nuke (barrakoi batean dagoelako).
 - Sagardoaren kultura erakusteko eta erakustarazteko leku bat. Gauzak asko asko hobeti behar dutela aurrez esandako puntu horretara iristeko.
 - Sagardoetxeak hitzak berak esaten duen bezala etxea bat, kultura, prozesua, tradizioa, etorkizuna... biltzen dituena.
 - Sagarra eta sagardoaren kultura baloran jartzen duen museo bat da. Erabaki bat behar beharrezkoa da jakiteko zer norabide hartu behar duen. Oraingo Sagardoetxeak ez ditu baldintza minimoak betetzen erakusketa aldetik, espazio aldetik...
 - Sagarra eta sagardoaren kultura mantendu eta zabaltzeko gunea, jarduera, ekintza eta egitasmo ezberdinen bitartez, euskaldunon identitatea eta kulturaren adierazgarri den sagardoaren kultura sustatzeko lekua. Urtean zeharko jarduera eta ekintza eskaintza zabala.
 - Sagarraren mundu eta kulturaren eragilea.
-

ZER MOTIBAZIO DUZU PARTAIDETZA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO?

- Astigarragan Sagardoetxeak jarraipen luze bat izan dezan.
 - Hasieratik bizi izan dudan proiektua delako, eta herritarren partaidetza behar duelako.
 - Herritar bezala gogo handiz nago gaia ea behin betirako garbi gelditzen den.
 - Herritarren ikuspegia ezagutzea.
 - Herritarren parte hartzea, herriak zer erabakitzen duen.
 - Norabide bat hautatzeko premia ikusten dut.
 - Proiektua eraldatzeko eta zabaltzeko aukera partaidetza-prozesu honen baitan egoteak. Euskal Herri mailan sagardoak duen garrantziak. Eta museoaren potentzial sozio-ekonomikoak.
 - Sagardoak Astigarragan duen garrantzia ikusita gidoi egoki bat egitera eta bertan parte izateko.
 - Sagardoetxeak beste "buelta" bat behar duela argi dago. Azpiegitura
-

egokiagoak. Baina ez dut makroproiektu bat nahi. Hortaz, pixkat bat freno moduan aritu nahi dut prozesu honetan. Zentzudunez jokatu.

- Sektoreko kide izatea.
 - Urte asko daramatzagu Sagardoetxe bat lortzeko eta behin betiko bukatzeko gogoarekin.
-

ZER ESPERO DUZU PARTAIDETZA-PROZESUTIK? ZEINTZUK DIRA ZURE ESPEKTATIBAK?

- Denon hitza entzun eta kontutan izatea. Denon artean aberatsagoa egitea.
 - Denon iritzia kontutan hartuta helburu egoki batera iristea.
 - Hausnarketa sendoa egitea eta herritarrei zabaltzea.
 - Herriak bere osotasunean (herria eta sagarraren munduari lotutako jendeak) kontzienteki Astigarraga sagarraren kulturaren hiriburua dela (edo ez dela) erabakitzea eta horri jarraituz ekintza konkretuak egitea.
 - Herriak zer motatako sagardoetxea nahi duen ezagutzea eta herritarrek proiektuaren parte sentitzea.
 - Herrian izan den gai korapilatsuaz garbi eta lasai hitz egiteko aukera edukitzea. Eta beste garai batean gaude, gauzak lasaiago daude eta Udalak bere etxeko lanak eginak ditu. Hau dela eta, espektatibak oso positiboak dira.
 - Herriarentzat sagardo kultura aberastasuna da. Proiektu berri bat irudikatzea, azken hitza herriak izango duena.
 - Iruditzen zait osatuagoa beharko lukeela. Herriko jendea motibatu eta erakarri, horretan nahiko eskas ikusten dut.
 - Onak. Korapilo bat askatzera goazela uste dut.
 - Proiektu adostu, komun eta sendoa eraikitzeke lehen erabakiak hartzea. Berrikuntza ikuspegi batetik lantzea. Ilusioa eta ikuspegi partekatua barne biltzen duen ondorio eta emaitzak.
 - Proiektu handi batek izan behar dituen mugak ongi definitzea nahiko nuke. Galdeketa egiten denean, makroproiektuaren aukera ez dadin egon. Ekonomikoki museoa oso jasangarria izatea nahiko nuke, herriarentzat zulo/hipoteka bat izango ez den zerbait.
 - Prozesu honek bide luze bat izan dezan.
-

3. Sagardoetxea, etorkizuna erabaki

3.1 Partaidetza-prozesua

Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzeke adostutako partaidetza-prozesua aurkeztu da, honen helburuak, lan-prozedura eta lortu nahi den emaitza azaldu dira.

(Ikusi HT_1.saioa_Aurkezpena dokumentua)

3.2 Sagardoetxea

Sagarduneko Joxe Mari eta Leirek Sagardoetxearen 15 urteetako ibilbidea eta gaur egungo jardura aurkeztu dituzte. Era berean, Sagardoetxean indarguneak, ahuleziak eta beharrak konpartitu dituzte.

(Ikusi HT_1.saioa_Aurkezpena dokumentua)



3.3 Hausnarketa partekatua

Lehenik eta behin, norbanako edo eragile bakoitzari hurrengo galderen inguruan hausnartzeko eskatu zaie. Ondoren, talde handian partekatu ditugu.

Jarraian, galdera bakoitzaren inguruko erantzun eta hausnarketak:

1. Sagardoetxearen orain arteko ibilbideaz eta gaur egungo egoeraz zer azpimarratuko zenuke?

- Arlo asko azpimarratuko nituzke: dokumentazio-zentroa (ikerketa-lanak), nazioarteko ikuspegia...
 - Baliabide gutxirekin zuku handia ateratzen zaio.
 - Borondatea.
 - Gauza asko egin dira, garaian garaikoak. Orain, beste behin ere, garaiari egokitzea beharrezkoa da, etorkizuneko helburu eta ekintzak finkatuz.
 - Gogoa, gauzak egiteko grina.
 - Ibilbideaz jardueren aniztasuna azpimarratuko nuke. Eta gaur egungo
-

egoeraz Astigarragako Udalaren babesa eta herrian dagoen grina proiektua aurrera eramateko.


- Herri eskolako haurrez gain, astiartarrek ez dute Sagardoetxea ia ezagutzen. Ez dute ia erabiltzen. Deskonexioa handia dago herri atea Sagardoetxearen artean.
 - Museo eta jaialdietatik, ikerkuntza eta nazioartekotzera, proiektua zabaltu dela uste dut eta hortaz, behar berriak ditu.
 - Orokorrean ondo ikusten dut. Nik disfrutatu dut.
 - Sagar modua komunikatu eta dokumentatu duen lehen ekimena da, eta nagusia.
 - Sagardoaren kultura ezagutzera ematea.
 - Sagardoetxeko aurrekontu handiena SagardoForum eta Cyderlands-era doa, eta txikiena berriz herrira.
 - Zailtasun guztiekin, Sagardun Partzuergoak egindako lan potoloa.
-

2. Partekatutako analisisian zerbait falta dela uste duzu?

- Aurrez egindako proiektuen azalpen laburra (gogora ekarri edo ezagutzeko).
 - Gainontzeko administrazioek zein ekarpen egiten dioten Sagardoetxeari eta Udalak zenbat diru ematen duen urtez urte.
 - Bisibilizazioa. Presentzia estrategikoa, bai herrian zein kanpoan.
 - Herriarekin kohesio handiagoa.
 - Herriarekin konexioa, sektorearekin harreman estuagoa, etorkizuneko helburu eta ekintzen finkatzea.
 - Ikerketa esparrua historia eta kulturatik egiten da, zergatik ez zientzia arlotik? Ingurumena, gastronomia, nekazaritza... beste alor batzuetara zabaltzea.
 - Osatzea falta izan dela uste dut, kokapenari buruzko erreferentziak falta izan zaizkit.
 - Sagardogileen elkartasuna proiektua bultzatzeko. Eta adostasuna.
-

3. Eta herri ikuspegi batetik zer zaindu behar dugu?

-
- Derrigorrez finantzaketaren parte handi bat Eusko Jaurlaritzak edo GFA hartu behar du bere gain.
 - Ekonomikoki jasangarria izatea. Herrira begirako programazioa eta herritarrak erakartzea. Ahalik eta partaide gehien izatea.
 - Eragile eta herritarren partaidetza. Hala ere, beharrezkoa ikusten dut hau sendotzea eta euren iritzia kontutan hartzea.
 - Ez dakit.
 - Gazteen inplikazioa.
 - Herri izaera duten jaialdiak herriarenak jarraitu behar dute izaten.
 - Herriak berea bezala sentitzea Sagardoetxea eta inguruko ekintza guztiak.
 - Herriak ekonomikoki ezin du proiektua jasan.
 - Herrian dagoen eraikin edo espazio batean jarriko nuke museoa. Zeretik makroeraikin bat egin gabe. Bide batez, herriko erdigunean ez nuke eraikiko eta Kultur Etxe Zaharreko eraikinean ez nuke kokatuko.
 - Herrira zabaltu proiektua, Sagardoetxea herriarena dela ulertarazi eta ez sagardogileena.
 - Irudia, konexioa eta gastu ekonomikoen inpaktua zaindu behar da.
 - Izaera. Herritarrek bere sentitzea. Eta Sagardoetxeak ere jarduerak garatzeko dituen gabeziei erantzuna ematea.
 - Uste dut Sagardoetxeak oraingo nortasuna izan behar duela, herrian errotuta egon behar duela.
 - Sagardoetxeak ekonomikoki edo arkitektonikoki proiektu jasangarria izan behar du.
 - Sagardotegi edo txotx bolada ereduak eragin handia du herritarrengan, zergatik ez Sagardoetxeak bizikidetzaren zaintzan eragin?
 - Sagarraren eta sagardoaren museo batek sagastia beharrezkoa du. Sagarraren eta sagardoaren sektorea kontutan izan behar du. Aurrekontua ez luke Astigarragako Udalarena soilik izan beharko. Herrian adostutako proiektua izan behar du. Hortaz, izaera, kokapena eta aurrekontua zaindu beharko lirateke.
-



Behin banakakoa partekatu ondoren talde-txikitan Sagardoetxearen etorkizuneko eszenatoki desberdinak irudikatzeko eskatu zaie partaideei. Hurrengo da jasotakoa:

1.Taldea

- Erakusleiho, museo, interpretazio zentro, denda, interaktiboa, ekonomikoki autosufizientea...
- Dibulgaziorako tresna bat.
- Que se identifique con mayor conexión, una red de actividades a nivel de nación.

2.Taldea

- Sagastia
- Dokumentazio zentroa
- Tailerrak (bertan sagardoa egin, tolarea jarri, eraberritze lanak...)
- Denda
- Irisgarria
- Zerbitzuak hurbil (frontoia, parkea...)
- Dastaketa gunea
- Sektorearentzako poli bihurtu (Euskal Sagardoak egoitza museoan izatea)

3.Taldea



4. Balorazioa

Hausnarketa-saioaren balorazioa egiteko partaide bakoitzari lau gometx banatu zaizkie dianan jasotako lau aldagaiak baloratzeko. Hurrengoa izan da emaitza:



5. Itxiera

Hausnarketa-saioan parte hartzeagatik eskerrak eman eta hurrengo hitzordua gogorarazi da:

- Maiatzaren 6a, osteguna, 18:00tatik 20:30tara, Astigarragako Kultur Etxe zaharrean.